

Toribio Etxebarria il da!

El 18 de Abril último y en Caracas ha fallecido, a los 80 años, el que fue insigne eibarrés, benemérito en muchas realizaciones sociales, escritor de bien cortada pluma, eminente vascofilo y miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca D. Toribio Etxebarria.

Digamos también —sin pretensión de agotar sus títulos— que Toribio fue en pro de nuestra Revista EIBAR un admirador entusiasta que nos alentó en no pocas ocasiones y a la que dedicó muchos trabajos literarios, no negándonos jamás su altruista colaboración.

Sentimos mucho su muerte. Toribio fue un auténtico hombre. Su altruismo y su sentido humano profundo le hicieron enrolarse en opciones sociales de verdadera entrega con ansias de un mundo mejor.

Toribio fue profundamente religioso, en una búsqueda constante de la Verdad con mayúscula. La Biblia —Palabra de Dios— fue su libro preferido. El aire de renovación que supuso el Concilio alentó no poco su vida —refrendando sus ilusiones comunitarias— en los últimos años de su existencia terrena.

Como homenaje y agradecimiento a este hombre, eibarrés bueno, publicamos un artículo que Juan San Martín nos envió gentilmente y que vemos también publicado en ZERUKO ARGIA. También transcribimos otro artículo de D. Carlos Santamaría. En el número extraordinario de San Juan rememoraremos de nuevo su bienhechora memoria.

Al terminar estas líneas, nuestro recuerdo vuela al Padre de los cielos. A El le pedimos —de todo corazón— el premio eterno para su hijo, noble eibarrés, Toribio Etxebarria. Que así sea.



Toribio, bi lagun eibartarren erdian.

Baiona'ko Musee Basque'k argitaratzen duan aldizkarian azken zenbakian Pierre Lafitte kalonje ta euskaltzain jaunak egiten dio aipamen berezi bat T. Etxebarria eibartarraren *Ibiltarixanak* izeneko liburu ederrari, ta ale bat bialdu nion aspalditik erbesteraturik Caracas'en bizi zan erkideari. Pozer erantzungo zuan urtetan nengoala, berri beltz bat jaso nuan: erioztak erantzun zidan.

Apirillaren 18'an il zan Toribio Etxebarria Caracas'en, bere alabaren etxean baiña maite zuan eritik urrun. Munduz-mundu ibiltari irtetzera beartu zan gizonak bere atsedena arkitu du, ainbeste ibillera nekegarriren ondorean inungo lur otzak iruntsi bear. Mundua oso tristea da geienentzat; bai Toribio'rentzat ere.

T. Etxebarria, Eibarren jaio zan 1887'an. Autodidakta bazan ere, jakituriaz ondo ornitua egoan. Amairu urterako lanera joatera beartu zan, famili pobre batean sortua zanez, baiña bere kabuz jardunaz igo zan maillaz mailla, Eibarko udaletzeko sekretaritzara erametetik, Alfa'ren sortzaille eta zuzendari izatetik Espaiña guztiko Campsa'ren buru izateraino. Denbora bateko Eibar'ko sozialisten buruetariko bat zan, Amuategui, Madina-beitia eta Meabe'ren ondoren.

Sortzetik zeraman barneko kezka ta jakite egarria, nair politikaz, fedez edo esistentziaren arazoetan beti nabaitu zan kezkatu, beti billari, beti aruntzagoko joereri begira. Zentzuz jokatzera eta zintzo jokatzera izan ziran bere ardurarik berezianak, eta bere dotriña orren barnean on egitea bada familia askoren ogia lortzea. Ta gainera inoiz ez zuan nai ogia lortu zutenen eskerrik, ta esker-txarrerri ez zion jaramonik egiten. Mundura urri etortzen diran gizon oietakoa genuan Toribio.

Berak eragindako azien frutuak noizbait erneko dira. Bere egintzekin iratzartu zigun ispiritua ta bere obrak gerokoen eskuetan ere litzeke izango dira. Zeren amaika liburu mardul utzi digu lurraren gainetik gizonen alderako maitasunaz igaro zan onek. Mexicon argitaratu zituan erderaz *Metafisica a Urcola* (berak munduaren izateari buruz zituan iritziekin), *La experiencia socialista* (berak bizi izan zuen politika arazo bere eritik ikusia), *El hijo del Hombre* (erlijioa Ebanjelio bidez eta orainko jokaeraz ikusiz), *Tres ensayos* (lanari, jakintzari eta otoitzari buruz). Eta *Viaje al pais de los recuerdos* gelditzen da argitaratu gabe, bere gartzaroko oroitzapenak oinarritz dituala egiña.

Erbestearen txertatu zitzaion erriegoari ere ez zion ukorik egin eta bere guraso izkuntza zeatz artertu zuan. Ikusi besterik ez dago bere *Flexiones verbales de Eibar* eta *Lexicon del euskera dialectal de Eibar*, Eibar'ko aditz-joko ta iztegiari buruz, 10.000

fitxa inguru biltzen dituan itzen zeartasunaz. Lan aukerak Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarietan argitaratu ziran, eta ongi merezita, auegaitik, Euskaltzaindiak bere laguntzaille izendatu zuan 1965-garren urtean.

Baiña ori ez da guztia. Aspalditik etorren euskeraz zenbait aldizkarietan bere lantxoak argitaratzen *Eusko-gogoa'n* asi eta *Eibar* aldizkariara arte, *Euskera*, *Egan* eta *Oleri'tik* pasatuaz. Baiña oietan argitaratuak gutxi batzuek besterik ez ziraner, oiekin eta oiez gainera zituaneekin igazko urtean argitaratu zuan bere euskerazko lan nagusia: *Ibiltarixanak*, *Itxaropena* argitaldarian. *Ixa bosteun orrialde dituan lana, bertsoz eta izlaur egiña*. Geienak bere buruz egiñak eta gutxi batzuek itzulpenak. Bertan azaltzen ditu egilleak bere pentsamentu, sentipen, ibillerak, eta abar. P. Lafitte jaunagandik orren arrera ona izan duan liburua da. Eibar'ko euskeraz egiña. Ta, Eibar'ko euskera aberatsa ez bada ere, bai ugaria, ugaritasunaren aberastasunak gutxi irabazi al izatekoa.

Nola leikean ainbeste lan? Ba, bai. Bere izterdiaren nekez bere barruko almazena ondo bete zuanez, duan eskeindu dizkigu. Bertso batean dion bezala:

Sari bako gauzetan
aritzen danari,
ez interesa aittatu,
alperrik ba ari.

Liburu oni egin nion itzaurrean nion bezala gizonak ere arbolak, bezala, benen frutuetik ezagutzen dira onduren, eta Toribio, bai ideaz eta bai egintzaz, bere asmurik onenak eskeiniar pasatu da mundutik. Inoiz on egitearen paguari begiratu gabe, nair ta azkencrako bere burua erbestearen zear urriñeko lur otzetan eratzitza kondenatua agertu bear. Ta, orrela izan da, bere bertso batean alde aurretik agertu zuan bezala:

ala geixago ez bertako
t'amaittu biar esbesteko.

Erritarra izanarren, alkarren artean genduan urteen diferentzia gaitik ez nuan izan aukerarik personalki ezagutzeko bera, 1959'ko udaran Hendaiara etorri zan arte. Artsalde atsegina ura pentsalari ta ibiltariarekin igarora. Bere bertsoz gogoratuko nuke:

....bere kapelapeko
igartutako arpegizan,
zeru urdiñ guztietako
laztanen gozua zeroyan;
ederra begien barruan,
bidietako ikuskizunen
eta ixa egun urteko
soñuak belarrixetan.

Baiña andik lasterrera diabetis gaitza azpianean ari zitzaion eta ain itxura ona zuen gizon ura urtetik urtera beera etorren. Baiña, ala ere, ez genuan espero orren aguro ilgo zanik.

Ez dakit nik bialdua artuko zuan, baiña nik beragandik artu berri nuan argitara gabe gelditu zitzaizkion lan sorta bat, bertsoz eta izlaur, batez ere Margarita Nafarroakoaren ipui geiagoren itzulpenaz, eta *Ondakiñak* izenburutzat duela. Noizbait eta nunbait argitaratuko al da. Bere ilburukotzat, *Ibiltarixanak* liburuaren irabaziak Eibarko hospitalerako utzi ditu. Beraz, asken borondatea ere olakoa izan du gizonak, alperrik bere lurretik urrun arkitu,

gizon apurtu bakarra
bizixan illunabarra...

Damatu bearrezko gauza gutxi izango zuan bere barnean, ta bai kontzientzia nunnai zabal eta lasai agertzekoa. Munduak zergaitik emango ote ditu orrelako gizonak ain urri?

Juan SAN MARTIN.